

{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Ultraeskuinaren joko zelaian beroketa arriskutsua eginez

Frantses estatuan euro baten truke menuak jarri ditu Gobernuak unibertsitateko ikasle- en eskura. Gazte anitzentzat bazkari beroa jateko aukera bakarra karitatezko erakunde- etara jotzea baita pandemia garaian. Parise- tik mundu zabalera barreiatu diren “gose ila- ren” bideoak errebolta sortzeko modukoak badira. Hala ere, arrakala sozialari karitatearen parametroen arabera erantzun dio Emmanuel Macronen gobernuak, irudi ho- riek argitara eman duten hausturari sakoneko arrapos- turik bilatu gabe. Adierazgarria izan da, bestalde, “salba ditzagun ikasle pobreak” leloa mereziko lukeen kanpai- nari gehitu zaion bertze osagai mingotsa.

Frederique Vidal Unibertsitate ministroak «islamo-ez- kertiari» moztarria kentze- ko agindua eman du, ikerke- ta zientifikoaren ikur den CNRS gurutzada horren «ko- laboratzaile» bilakatu nahian. Esku batekin, euro baten truke plater bat; beste eskuarekin, maccarthysmoa- ren errezeta berregosia.

Gerraurreko urteetan sus- tatu zen giro goibel, nahasia, garratz, suntsitzaile irudika- tzen ari da gero eta gehiago urgentzia estatuaren itzalpe- an garatu den aro ilun honetan. Osasun larrialdiari buru egiteko aitzakiaz onarturiko agindu kate amaiezina guztiz murriztu du joko zelaia, bide batez eztabaida pu- blikoa muturreko parametroetara eramanez.

Elkarriketaren ordezkari bakarrizketen –asko jota buruz buruko– eskema nagusitu da, pentsamendu kolekti- boaren eraikuntzari enegarren oztupoa ezarritik. Horrela, aitortu gabe ere, kanpainaurrea irudikatzen hasia da macronismoa. Dagoeneko telebista platoetara jo du, Presidentetzarako hauteskunde kanpainari begira bero- tze ariketak egiteko. Gerald Darmanin Barne ministroa sparring lanean jarri du Macronek. Are, boxeo emanaldi batekin aski ez, bi antolatatu ditu, diglosia katodikoa pro- fitatuz. Konplexurik gabeko eskuina eta eskuin mutur

ofiziala aurrez aurre telebista publikoan. Gerald Darma- ninen eta Marine Le Penen arteko borrokaldi xuria 1,9 milioi ikuslek jarraitu zuten. Eroso jardun zuten ustezko aurkariak. Lehenak migrazioa, islamismoa eta oro har «segurtasunaren erronkaren aurrean» Gobernuak har- turiko ekinbide irmoa erakusteko baliatu zuen saioa; bi- garrenak, irudia leunduz sinesgarritasuna irabazteko.

2017an Macronen aurka izandako debatean eginiko akatsak zuzendu eta bere programa errealtatean txerta- tzea izan zuen xede Le Penek. Benetako borrokaldiaren zain bere patroia izanen dela eskuinaren lemazain baka- rra argi uztea zen, berriz, Barne ministroak zuen misioa. Biek ala biek lehen hurbilpenari etekina atera zioten, ba- tak besteari aparteko minik egin gabe, biok bazutelako

Kanpainaurreko aperitifak gisara, Marine Le Penekin lehenik eta gero mezu arrazistak zabaltzeagatik birritan kondenatu duten ultraeskuinaren izar katodiko batekin lehiatu da Macronen Barne ministroa

zer irabazi joko eremua finkatuz. 2022ko hauteskunde- tan lehen itzulian hutsa balitz bezala bi lehiakide- en arteko eskema indartzeko balio izan zuen saioak.

Alta, gidoia nonbait motz geratu zelakoan bigarren emanaldia heldu zen. Oraingoan, alde aurretik kimatu- tako joko eremuari lokatza gehituz. Birritan arrazakeria, eta zehazki islamofobia, sustatzeagatik kondenatua izan den Eric Zemmour ultraeskuin katodikoaren izarrak be- re etxean, teleerrealtatearen doktrina eztabaida politi- kora etenik gabe eramaten duen kate pribatuan, gonbi- datu gisa hartu zuen Gerald Darmanin. Hartara, muga eta arau zorrotzez beteriko garaian, legea kontzeptu lau- so bat balitz bezala azaldu zen ikusleriaren aurrean, in- punitatea eskaintza politikokoan txertatuz. •